



7. AKTA

2004ko ekainaren 17an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila eta lauko ekainaren hamazazpia

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucía Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 8:30etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarreko akta 6. 2004ko maiatzaren 31koa irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 7/04 zenbakiko kontu eta fakturen zerrenda.



Pasaiaiko Gobernu Batzarrak erabaki du ontzat ematea 7. zka. duen kontu eta fakturen zerrenda, BERROGEITA HAMASEI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HOGEITA SEI ZENTIMOKOA (56.951,26 Euro).

3.- Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2004ko maiatzaren 26an eta ekainaren 7an aurkeztutako proposamenak, 1/04, Udaleko 1/04 eta 2/04 proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoak aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat 1/04, Udaleko 1/04 eta 2/04 proposamenei dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARREN.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

4.- Herriko jaietarako gastu-aurrerakinak.

Alkate andreak 2004ko maiatzaren 28an proposama eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez erabaki du ondoko kopuruak ematea barruti bakoitzeko Jai Batzordeei Zaindari Jaiak antolatzeko:

- SAN PEDROKO JAI BATZORDEA 27.220 euro
- DONIBANEKO JAI BATZORDEA 26.030 euro.
- PASAI ANTOKO JAI BATZORDEA 34.830
- TRINTXERPEKO JAI BATZORDEA 29.930 euro.

Hau guztia indarrean den udal aurrekontuko A-660/04 Baimendutik.

5.- Ordainketa Pasaia-Lezo lizeoari (Hitzarmena).

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi-Ordezkariek 2004ko maiatzeko 18an proposamena eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU



LEHENA.- Pasaia-Lezo Lizeoari 60.147 euro ordaintzea 05.481.422.00.02 Lizeoarekin Hitzarmena partidatik, Pasaia-Lezo Lizeoak eta Pasaiako Udalak sinatua duten Hitzarmenaren arabera.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

Hau guztia indarrean den udal aurrekontuko A-655/04 Baimendutik.

6.- Diru-laguntza Pasaiako Antzerki Tailerrari.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi-Ordezkariek 2004ko maiatzeko 18an proposamena eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- PASAIAKO ANTZERKI TAILERRARI 8.250 euroren ordainketa egitea onartzea, 2004. Urteko diru-laguntzari dagokiona, 05-481-451-10-02 partidaren kargura eta indarrean den udal aurrekontuko A-727/04 Baimendutik.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

7.- Obra-lizentziaren eskaera Oiartzun kaleko 12, behegaina, A-n.

MERTXE PASTORIZA CASTRO andreak 2004-04-20an OBRA TXIKIA EGITEKO LIZENTZIA eskatu zuen bere etxebizitzako fatxadan leihoak aldatzeko eta balkoia ixteko.

Pasaiako AASSetako 084.1. art.an ondokoa adierazten da: *“eraikinen kanpoaldearen tratamendu bateratu eta homogenea eskatzen da”*. Eta 084.2. artikuluan ondokoa: *“Eraikin bateko fatxaden tratamendua aldatzen bada, estaldura, zurajearen material edo diseinu, karek eta balkoiak, terrazen itxitura, baoen eraketa edota behe solairuko obra-estaldurak aldatzen badira, delako aldaketa egiteko irizpide BATERATUA aplikatuko da, eta kasu guztietan fatxada osoaren altxaera-plano bat aurkezteko eskatuko da.”*

Horregatik guztiaengatik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- METXE PASTORIZA CASTRO andreari obra txikia egiteko lizentzia ukatzea, bere etxebizitzako fatxadan leihoak aldatzeko eta balkoia ixteko, egin beharreko obrak Pasaiako Arau Subsidiarioei egokitu behar zaizkielako.

BIGARRENA.- Nolanahi ere, Trintxerpe-Azkueneko Plan Estrategikoak eraikin horretan balkoiak ixtea baimentzen duenez; eskatzaileak lizentzia eskuratu ahal izango du, ondoko alderdiak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztuz gero:

“3. artikulua.Balkoiak itxeko baldintzak.

Balkoiak itxi ahal izateko, interesdunek jabekideen komunitatearen akordioa aurkeztu beharko dute, bertan ondoko puntuak jasoko dira:

—4 eta 8 urte bitarteko epe barruan fatxada homogeneizatzeko jabekideen konpromisoa, hau da: Epe horren barruan balkoi guztiak itxiko dituzte, denen artean adostutako diseinuaren arabera.

—Aurrekoa bermatzeko, berme solidarioa aurkeztu beharko dute; fatxada berdintzeko egin beharreko obraren kostuaren % 30ekoa, gutxienez 15.000 pta./m².

—Balkoien itxieraren diseinua.

4. artikulua.Balkoien itxieraren diseinua.

Balkoien itxieraren diseinua goi mailako arkitektoak idatzitako aurreproiektuan datza; diseinua, materialak, sekzioa, kolorea eta modulazioa azalduko dira bertan.

Jabekideek eraikinean egingo diren itxieren diseinua aurkeztu ezean, udalak eredu bat ezarriko du eta jabekideek eredu horren arabera itxi beharko dituzte balkoiak eurek jarritako epe barruan. Horretarako, udalak diseinua eskatuko du eta ondoren eraikineko bizilagunek 15 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

Aurreproiektu horren kostua bizilagunek ordaindu beharko dute, benetako kostuaren arabera.

5. artikulua.Bizilagun-komunitatearen akordio-eredua.

Balkoiak itxi ahal izateko udalean aurkeztu beharreko jabekideen akordioa, ordenantza honi erantsitako I. eranskinean ageri den ereduaren arabera izango da. Era berean, bermea ere normalizatutakoa izango da.”

HIRUGARRENA.- Leihoak aldatzeari dagokionez, ondoko agiriak aurkeztu behar ditu:

- a) *Komunitate osoaren akordioa, ondoko konpromisoa jasotzen duena: fatxadaren egitura era bateratu eta homogeenan mantendu edo lehengoratzekoa. Hartara, fatxadak bete egingo du Pasaiako AASSek diotena eta arkitektura aldetik egokia izango da.*
- b) *Akordio horretan adieraziko dute fatxadako bao bakoitzean zer nolako arrotzeria eta defentsa (pertsianak, kontraleihoak) jarriko dituzten, ondoko ezaugarriak zehaztuz: materiala, kolorea, orri kopurua, erabilgarriak izango diren edo ez, leihoa fatxadaren barrualdean, erdialdean edo kanpoaldean jarriko duten...*
- c) *Balkoiak itxi nahi izanez gero, Balkoiak Ixteko Ordenantza Arautzailean adierazitako urratsak eman behar dituzte. Urrats horiek komunitate osoak emango ditu, bakoitza bere aldetik ibili gabe.*

Eskatzaileak leihoak bakarrik aldatu nahi baditu, balkoia itxi gabe, hori bakarrik egiteko lizentzia eskatu ahal izango du, a) eta b) ataletan zehaztutakoa jasotzen duen komunitatearen akordioa aurkeztuz.

LAUGARRENA.- Kontu-hartzailetzari eskatzea udal eskubideak likidatzeko, behar bezala jakinarazi ondoren.

BOSGARRENA.- Interesatuari akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

8.- Obra lizentziaren eskaera, La Herrerako Portu Eremuan azpiegitura lanak burutzeko.

2004-04-02an AURELIO CAMPO IGLESIAS jaunak, Euskaltelen izenean, azpiegiturako obra-lizentzia eskatu zuen lurpeko kanalizazioa egiteko, zenbait pabilioietako fatxadetatik pasatuz. Kanalizazio honen helburua da pabilioi horiei telekomunikazioetako zerbitzuak ematea.

Udal teknikariak 2004ko maiatzaren 11n eskaeraren aurkako txostena egin zuen.

Portuko Zerbitzu Gunearen Antolamendurako Plan Berezia oraindik ez da onartu eta hain zuzen ere planeamenduko tresna horrek ezartzen du lizentzia ematea zilegi den ala ez.

Lizentzia honen helburu den jarduketa, eremu horretarako erabakitzen den antolamendu berriari atxikita gera daiteke.

Horregatik guztiarengatik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- AURELIO CAMPO IGLESIAS jaunari, Euskaltelen izenean, azpiegiturako obra egiteko lizentzia ukatzea; zehazki lurpeko kanalizazioa egin nahi zuten, zenbait pabilioietako fatxadetatik pasatuz, pabilioi horiei telekomunikazioetako zerbitzuak emateko. Lizentzia ukatzeko



arrazoia honako hau da: oraindik ez da onartu Portuko Zerbitzu Gunearen Antolamendurako Plan Berezia.

BIGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

HIRUGARRENA.- Interesatuari akordio hau jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

9.- Lehen Erabilerarako lizentzia eskaera, 2.08.06 Villa Ana Mary Hiri Eremuan.

2004ko apirilaren 30an “Ovidio Guerecachevarría y otros” C.B. ek 2.08.06. H Ean 28 etxebizitza lokal eta garajeak “Villa Ana Mary” eraikinaren lehenengoz erabiltzeko lizentzia eskatu zuen; eskaerari erantsita, besteak beste Joaquin Zubiria Sautu arkitektoak eta Aitor Alcelay Ormazabal aparejadoreak sinatu eta 2004ko apirilaren 27an ikus-onetsitako obra amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen.

2002ko abuztuaren 12an Pasaiako alkateak baimena eman zion “Ovidio Guerecachevarría y otros” C.B.ri 2.08.06. H Ean “Villa Ana Mary” 20 etxebizitza, lokal eta garajeak egiteko indarrean dagoen planeamenduaren arabera.

Udalak behin-behineko onarpena eman dio 2.08.06 HE “Villa Ana Mary”-ri dagozkion Planeamenduko AASSetan aldaketa puntual bat egiteari, eta horren arabera etxebizitzak 20tik 28ra gehitzea aurreikusten da.

Eraikina aldaketa-prozesuan den arautegiaren arabera gauzatu da, 2002ko martxoko 7an sinatutako Hirigintzako Hitzarmenari jarraiki.

Pasaiako Planeamenduko AASSetako 36.1 art.aren arabera lizentzietan baldintzak ezarri beharko dira, beti ere haien bitartez lizentzia ukatzea ekidin badaiteke, eta halaber lizentziaren egikaritzea, hots, legezko ondorioak izatearena, dokumentazio osagarria aurkezteko baldintzapean xeda daiteke.

Hau guztia, eta Pasaiako Planeamenduko AASSetako 33.13 g) eta h) idatz-zatiak kontuan harturik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- “Ovidio Guerecachevarria eta beste”C.B.-ri 2.08.06 HE “Villa Ana Mary”-n kokatutako 20 etxebizitza, lokal eta garajeen gainean, lehen erabilerara partzialeko lizentzia ematea, Pasaiako Planeamenduko AASSetako 33.13 g) eta h) idatz-zatietan ageri den dokumentazioa betetzekotan.

BIGARRENA.- Gogoratu behar da garajeak erabiltzeko beharrezkoa izango dela irekitzeko lizentzia espezifikoa izapidetzea, honako agiriak izango dituen: NBE-CPI-96 betetzen delako



ziurtagiri ikus-onetsia eta lizentzian suteetatik babesteko ezarritako baldintza partikularrak betetzen dituelakoa.

HIRUGARRENA.- Urbanizazioaren harrera egin baino lehen, behar bezala eguneratutako dokumentazioa entregatu beharko da, euskarri grafikoan eta digitalizatua, eraikina eta ingurumariak hornitzeko egindako instalazio guztiei dagokiena.

LAUGARRENA.- Gainerako 8 etxebizitzetarako lehen erabilerako lizentzia berria eskatu beharko du, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.08.06 HE “Villa Ana Mary”-ri dagozkion Planeamenduko AASSetan egindako aldaketa puntualari behin betiko onespena eman ondotik.

BIGARRENA.- Kontu-hartzaitzari eskatzea udal eskubideak likidatzeko, eta zehazki, lehen erabileragatik ezartzen dena eta EIOZen likidazio osagarriaren tasa, obren azken likidazioaren arabera kalkulatu, hots, 1.507.947,73 euroko kopuruan oinarrituz.

SEIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez

10.- Portu Eremuan 4. zk.a bis habearte-biltegi berria eraikitzeke lizentzi eskaera.

Gai hau mahai gainean gelditzen da, Pasaiako AASSetako 35.5 art.aren arabera, obra-lizentzia irekitzeko lizentziarekin batera tramitatu behar delako.

11.- Portu Eremuko biltegi batean industria jarduerarako lizentzia eskaera.

Gregorio Esparza Mugika j.ak Estibadora Algeposa S Aren izenean industria-jarduera lizentzia eskatu zuen 2004-05-19an Pasai Antxoko moilaren portualdeko eraikuntzako biltegirako, eraikuntza hau itsas komandantzia eta 5. biltegiaren artean dago. Biltegi-lantegi berriaren eraikuntzarako oinarritzko proiektua ere aurkeztu zuen Construbrik, S Mak idatzia, sinadura eta ikus-onetsirik gabea.

Udal teknikariak aurkako txostena idatzi du 2004ko maiatzaren 25eko datan, ez delako tramitatu ez onartu Portuko Zerbitzu Guneko Ordenaziorako Plan Berezia eta gainera egiteko asmoa den eraikinak ez dituelako betetzen aipatutako Ordenazio Planak onartzen dituen gehienezko altuerak.



Hala ere, kontuan hartuta egiteko asmoa den eraikinak lehendik dagoen bat ordezkatzeko duela,

Pasaiako AASSen 170. art.aren kodifikazioaren arabera 752. epigrafea dagokio, 1. eta 2. kategoriatik kanpo eta 3. kategoriaren barnean. IGOKA Jardueren Proiektua eskatuko zaio.

Jarduera jasota dago baita ere Sailkatutako Jarduera moduan otsailaren 27ko 3/1998 Legean, II. eranskineko aplikazio jardueren zerrendan eta ondorengo hau da bere kategoria: “d) industria orokorrean”

Proiektuak, bestalde, ez du justifikatzen hondakin-obren eta isurketen saneamenduari dagokion arautegia betetzen duenik (200. Art.tik 204. artikulura artekoak), ez atmosfera babesteko arautegia (205. art. eta ond.) ez eta zarata eta bibrazioen babesaren arautegia ere.

Material metalikoen erradiologia-zaintzarako lankidetzaprotoakoloa kontuan hartuta, besteak beste, Sustapen Ministerioak sinatua Madrilen, 1999ko azaroaren 2an

EAEko 3/1998 Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren 58. Artikulua kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez.

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Gregorio Esparza Mugikak, Estibadora Algeposa, S.A.-ren izenean 2004-05-19an egindako eskaera izapidetzea onartzea INDUSTRI JARDUERARAKO IREKITZEKO LIZENTZIA emateko, Pasai Antxoko moilaren portualdeko eraikuntzako biltegirako, eraikuntza hau itsas komandantzia eta 5. Biltegiaren artean dago, hain zuzen lizentzia ukatzeko ez dagoelako udal eskumeneko arrazoirik, ondoko baldintzak betetzekotan:

- Saneamendu eta Isurtegiei buruzko Hirigintzako Arautegia beteko dela justifikatu behar da.
- Halaber justifikatu behar da atmosfera babesteko 6.1.2 Atala betetzen dela eta bertatik eratortzen diren arautegiak, hala habeartearen aireztatzeari dagokionez nola errekontza-keen metatze posibleaz edo han dauden langileentzako segurtasun baldintzak.
- Era berean justifikatu behar da zarata eta bibrazioen babeserako 6.1.3 Atala betetzen dela, eta bertatik eratortzen diren arautegiak zaratek ingurumarian sor ditzaketen eragozpenei dagozkienak, eta han dauden langileentzako segurtasun baldintzak.
- Azkenik, erradiologia-zaintzako neurriak hartu behar dira saihesten ahalegintzeko, eta hala gertatuko balitz, txatarrean erradiazio-materiala atzemateko eta kontrolatzeko, besteak beste, arku detektagailua instalatuz.



BIGARRENA.- Eraikinaren gehienezko altuerari dagokionez, Portuko Plan Berezian aurreikusten den gehienezko altuera errespetatu behar da eskatzaileak berak bere egunean onartu zuena Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan.

HIRUGARRENA.- Eskaera honen berri ematea hamabost eguneko epea zabalduz jendeari jakinarazteko eta jarri behar den jardueragatik nolabait kaltetuak sentitzen direnek egoki deritzoten arrazoibideak azal ditzaten Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztutako idatzi bidez.

LAUGARRENA.- Pertsonalki jakinaraztea proposatzen den kokagunetik hurbileneko auzotarrei.

12.- Berraztertzeako errekurtsua: Arrandegi 4-an kartela jartzeko baimena ukatzearen aurkakoa.

AURREKARIAK

LEHENA.- Jose Manuel González Abeijónek, A.T.C.E.S.L.-ren izenean, 2004ko maiatzaren 6an, berraztertzeako errekurtsua aurkeztu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko martxoaren 1ean hartutako akordioaren aurka, zeinen bidez ukatu egiten zen Arrandegi kalea 4, behegainean, iragarki-txartela jartzeko lizentzia.

BIGARRENA.- Akordioa 2004ko apirilaren 6an jakinarazi zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Errekurtsua hilabeteko epearen barruan aurkeztu da, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 117.1 artikuluan xedatzen den bezala.

BIGARRENA.- Ebazpena emateko eta jakinarazteko xedatua dagoen gehienezko epearen barruan ez da errekurtsu honi buruzko ebazpenik eman.

HIRUGARRENA.- Errekurtsu hau ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da, gorago aipatutako xedapenaren arabera.

LAUGARRENA.- Errekurtsu-jartzaileak aurkeztu duen idatziko hirugarren puntuan agertzen du udal teknikariaren kontrako txostena Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa baino geroagokoa dela, martxoaren 26koa denez gero. Delako argudioa ezetsi behar da Aparejadoreak txostena 2004ko otsailaren 2an egin zuelako, eta lanen aurrekontuaren balorazioa egiten zuen txostena, berriz, martxoaren 26koa zelako, horren arabera udal eskubideak likidatzeari ekiteko, eta gai hau ez zuen jasotzen martxoaren 1eko akordioak.

BOSGARRENA.- Bigarren arrazoibideak ere ezin du aurrera egin, aplikagarri diren Hirigintzako Ordenantzak 1997ko urriaren 31an sartu baitziren indarrean, eta arautegi horrexegatik ukatzen baita lizentzia.

SEIGARRENA.- Bulego jarduerarako 2003ko urriaren 24^an emandako lizentzian ez zen iragarki-txartela aurreikusten; ez eta ere egokitze lanak egiteko obra lizentzian. Seigarren alegazioa ezetsi behar da, aipatutako lizentziak emateak ez baitu iragarki-txartela jartzeko baimenik ematen.

ZAZPIGARRENA.- Zazpigarren puntuan Pasaiako beste establezimendu batzuetan ere iragarki-txartelei buruzko araudia ez dutela betetzen alegatzen du. Arrazoi hori ezetsi behar dugu, arau-hauste horiek ez baitute inoiz Araudiaren kontra lizentzia ematea justifikatzen.

ZORTZIGARRENA.- Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudiko 5.1 artikulua hitzez-hitz, ondorengo dio: *“en ningún caso se entenderán adquiridas por silencio administrativo facultades en contra de las prescripciones de la Ley del Suelo (.) o de las Normas u Ordenanzas reguladoras sobre uso del suelo y edificación.”* Zortzigarren puntuko alegazio horrek ezin du aurrera egin, kasu honetan ezin baita administrazio-isiltasunarengatik lizentzia lortu.

BEDERATZIGARRENA.- Era berean, errekursoaren azken argudioa ere ezetsi behar dugu, Arau Subsidiarioek iragarki-txartela soilik eraikinetako beheko solairuetan dauden lokaletan jartzea baimentzen baitute. Gainontzeko solairuetan, behegaina barne, ulertzen da, a sensu contrario delakoagatik ez dagoela baimendua.

HAMARGARRENA.- Espedienteari errekurso jartzaileak eskatutako agiriak erantsi dizkiogu, hain zuzen ere, errekursoan alegatutakoa egiaztatzeko froga moduan eskatutakoak. Halere, froga horiek ezin dira kontuan hartu ez baitiote akordio honi funtsik kentzen.

Horregatik guztiarengatik, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea A.T.C.E. S.L.-ren izenean, José Manuel González Abeijónek Gobernu Batzarraren 2004ko martxoaren 1eko Akordioaren kontra ezarritako errekurtoa; izan ere, bertan Arrandegi kaleko 4. zenbakiko behegainean iragarki-txartela jartzeko obra baimena ukatu zitzaion.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea, beraren kontra soilik Administrazioarekiko auzi-errekurtoa jar dezakeela adieraziz, bi hilabeteko epean.

13.- Ondare erantzukizuneko eskaera ezberdinak.



A) Concepción Robledo Abad andreak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

CONCEPCION ROBLEDO ABAD andreak erantzukizuneko eskaera aurkeztu dio Udalari, 2003ko urriaren 12an erori egin zelako Gran Sol eta Urrestarazu Anaiaren kaleak topo egiten duten espaloian. Zerbitzu Sailak zein Udaltzaingoak egindako txostenak azterturik eta erreklamatzailerak egindako aitortpena entzunda, Pasaiako Gobernu Batzarrak, aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- M^a Concepción Robledo andreak eginiko eskaera EZETZEA ondoko arrazoiengatik:

- Ez dira gertakariak egiaztatu inolako frogaren bidez.
- Gertaeraren lekukorik ez dago.
- Nahiz eta gertaera kalean jendea egoten den orduan gertatu.
- Aurkeztu duen larrialdietako medikuaren txostenak ez du zehazten kalean inolako erorketa baten ondorioa denik.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka zein errekurtsio jar ditzakeen adieraziz.

B) Hilo Direct Seguros, S.A.k egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

HILO DIRECT SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.k ondare erantzukizuneko eskaera aurkeztu dio Udalari bere aseguratua den JOSE LUIS MERINO VIDAL izenean 2002ko uztailaren 30ean bere jabegoko kotxeak 7810-BFJ matrikula duenak, Ulia 13 bis zenbakiko parean gasoil orban batekin irrist egin zuenean kalteak jasan zituelako, 3.984,36 eurotara heltzen dira kalteak, Udaltzaingoak eginiko txostena aztertu ondoren Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturiko zinegotzi guztien aho batez

ERABAKI DU

LEHENA.- HILO DIRECT SEGUROS Y REASEGUROS, S.A.k bere aseguratua izenean aurkeztu duen eskaera ezestea, ez baitu frogatu gertaeraren erantzukizuna Administrazioari egozterik dagoenik, alegia azken honek ezbeharrak ekiditeko ezer egin zezakeenik bere aldetik, azken batean istripua ezinbesteari egoztekoak diren arrazoiengatik gertatu zelako, zerbitzu publikoaren funtzionamenduari batere zerikusirik izan gabe.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka zein errekurtsio jar ditzakeen adieraziz.

C) Manuel Perez Sayar jn.ak egindako ondare-erantzukizuneko eskaera.



JOSE MANUEL PEREZ SAYAR jn.ak ondare-erantzukizuneko eskaera egin zuen SS-8579-BC matrikulako ibilgailuan 2004ko maiatzaren 14an izandako kalteengatik (eskuineko pilotoa haustea), garabiak gaizki aparkatuta zegoelako eramatean gertatutakoa.

Autoa eraman zuen udaltzainaren arabera, aurreko eskuineko pilotoa aurrez zegoen hautsia, eta aparkatua zegoen galtzadan ez zegoen tulipa-arrastorik.

Aurrekoan kontuan, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea Jose Manuel Perez Sayar jn.ak egindako ondare erantzukizuneko eskaera.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka zein errekurtsio jar ditzakeen adieraziz.

D) M^a Paz Quintana Egaña and.ak egindako ondare-erantzukizuneko eskaera.

M^a Paz Quintana Egaña and.ak ondare-erantzukizuneko eskaera egin du, 2004ko apirilaren 15ean erori egin zelako Pasai Donibaneko lehengo Mediku Kontsultategian, San Juan 30ean, eskailerak egoera txarrean zeudelako.

Gure eskuetan den dokumentazioaren arabera erreklamatzailerak ondo asko jakin behar zuen eskailerak zer egoeratan zeuden eta zer aukera zeukan eskailerarik pasatu beharrik izan gabe Juan XXIII kaletik joateko, are gehiago kontuan izanik zeramatzan oinetakoak ez zirela egokienak aukeratu zuen lekutik jaisteko.

Kontuan harturik lekukorik ez zegoela, eta Mediku Zentrora arratsaldean joan zela ez dago batere frogatua gertaerak benetan gertatu zirenik ere, eta hortaz, Tokiko Gobernu Batzar honek, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

ERABAKI DU

LEHENA.- Ezestea M^a Paz Quintana Egaña and.eak egindako ondare-erantzukizuneko eskaera.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka zein errekurtsio jar ditzakeen adieraziz.

Eta, beste gairik ezean, 9,40ean batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.

